



Haur-hiltzailearen Misterioa

Gilles de Rais figura gaizto bat zen, filmeetarako supergaiztoa. Bere arima odolez eta hilketaz bakarrik baketzen zuen baroi bretoina, 1440.eko urrian Nantes-en sutan kiskaili zutena.

Gilles de Rais, egungo teatroak behar duen deabrua zen justu justu. Ez du parte onik. Jeanne d'Arc-en alboan beldur gabe eta gupida gabeago burukatu duen heroi abertzalea. Elizak pertsegitu duen heretikoa. Bazterretan txikizioa eta negarra zabaltzen zuen basapiztia. Bere gudariak emagalduta eta sorginekin sekulako orgietan nahasten zituena zaldun endemoniatua. Ehundaka, menpekoen umeak ezpataz hil eta haragia jaten zuen munstroa... Erljio, hilketa, erreketak: non aukera hoberik, Autore "ausart" batentzat!

Autore ausart hori Planchon da. Villeurbanne-ko "Theatre National Populaire"-n, Arrabal eman ondoren, haur-hiltzaile perbertsoaren Misterioa muntatu duena. Sentsazio bat. Nola ez! Buñuel bera ere interesatu omen da gaiaz, hurrengo filme batetarako.

Ipuin beldurgarriek eta fantasma istorioek zineman duten arrakasta begien bistan dago. Egungo ikusleriak, larrua ikaraz zimurtzen dion ikuskaria eskatzen du. Zinemaren antzera, teatroa ere "thriller" bila abiatu zaigu. Izan ere, egungo ikuslearen larrua asko gogortu da. Drama klasikoek ez dute biguntzen eta ez ikaritzen eta larritzen. Tremendismo gehiago behar da, ikusle hori inpresionatzeko. Baina teatroak, zinematik ez bezala, intelektualki "sakon" ere izan nahi du. Eta sakontasun hori emateko, zer hoberik, seksu, gerra eta Inkisizio drama bat baino!

Gainera, Gilles de Rais, Planchon seminarista ohiak behar zuen deabrua da, frantses katolizismoaren literaturan Bernanosgandik Jouveganaino datorkigun Satan tradizioari jarraitzeko ere.

Nortasun haundiko erreminta, Gilles de Rais hori. Haren aldean beste denak, Inkisitoria, Nantesko apezpikua, Bretainiako Dukea, Urtia feudal jauntxoak, ergelkume hutsak dituzu. Onak, denak pelege hutsak. Gaiztoa da hemen gizona, korduna. Satan inguruan dantzan ari zaiola agertzen da beti Gilles de Rais hori. Beti bortizki. Kain antzera, Judas antzera. Eta, azkenean, Planchonek Misterio bat egin baitigu, ikaragarriko damuz eta orruz eta tormentuz eta desesperazioz, Gilles de Rais martiri bat duzu eta salbatu egin da. On denak gaiztoak dira, eta gaizto supergaiztoa saildu bat. Planchonek —obra idatzi ezezik, Gilles de Raisen papera egin ere berak egiten duenak— sentimenduz betetako lirismo hunkigarri batez arrebatazen du teatro osoa...

Sekulako zalapartak, txaloak, orruak. Aurreritzi denak gonfirmatu dira. Mundua berriz ere ordenuan dago. Argiak pizten dira. Eta jendea etxera joaten da, beti arrazoi zuela jakinez.

LAZKANO MENDIZABAL

Sonja Delaunay pintatzaileari omenaldia

Pariseko "Musée d'Art Moderne"-k erakusketa bat antolatu du Sonja Delaunayren ohorez, ohoratutako damaren 85 obra batera bilduz. Sonja Delaunay —beti ere, Saint-Germain inguruko Saint-Simon karrikan, bere atelier eta bulego gainean bizi dena— arte modernoaren testamentu zaharra bezalatsu da, bere 90 urte bete berriekin. Beraren izena kubismo, fauvismo eta beste ismo aspaldiko batzuekin lotuta dago. Orfismo delakoaz batez ere.

Orfismoaren asmatzaile, izan ere, Robert Delaunay zen. Sonjaren senarra. 1910.ean ezkondu ziren. Orfismo izena bera, Apollinaire-k atera omen zuen. Robert Delaunay dekorazioan aritzen zen, Gauguin eta Cézanne-k eraginda, pintura bizi, puntadun, zorrotz bat egiteari ekin zitzaionean. 1910.ekoak da, hain zuzen, **Eiffel Dorrea** koadrua.

Sonja Delaunayren izena beti egon da pixka bat senarren itzalean. Hala ere, bakoitzak bere aldetik lan egin du. Sonjarentzat, pintatzea, berak nahi zuena egitea izan da. Libertatea probatzea, askatasuna kolore konbinaziotan esperimentatzea. Koloreak espazio zabal mugagabe batetan zabaltzea eta argizko kurubil lineak kurbatzea. Gogoak ematen ziona egin du beti. Gogoak ematen ziolako, Blaise Cendraren liburuak ilustratu zituen. Serge Djaghilew-en ballet eskenarioak pintatzen zituen. Eta eskola eta ismo guztiak pikotara bidaltzen zituen, bere eta bere senarrarena barne.

Joan zen mende eta gure arteko itzulgunean sarri aurkitzen ditugun tipo jenial horietakoa izan da: zoro, lotura gabeko, anarkiko, eta une berean ikaragarri diziplinatu bere lanean. Proba asko egin behar. Gogor lan egin behar. Beti xede batekin: argia sortez.

Sonja Delaunayk idealismo gutirekin juzkatzen du bere garaia. Garai hura itxuragabeki idealizatu dugula uste du. Asmaketa haundien urteak izan ziren; baina hanka sartze haundien urteak ere bai, Sonjaren eritzian.

Sonja Delaunayren artea merkatuaren gustukoa da, inondik ere. Edozein marrazkiñoren prezioak erakusten du. Rue Saint-Simonen, bere atelier eta bulego gainean, oinarri ekonomiko guztiz sendoaren gainean, lasai lo egin lezake Madame Delaunayk. Urruti dago, 1903.ean Errusia esku hutsik utzi zuen garaia, Parisen pintura ikasteko.

LAZKANO MENDIZABAL